

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

- ① Mintza gaiten lehenbiziko leerroen araoag.
- ② — " — bi auzoen samurgoag -
- ③ — " — Intzaur-ondoag

II

**Intzaur ondoa**

1

**D**ENBORA ederrak doatzi lurrarentzat. Uztaila da; hitzak polliki erraiten duen bezala, uzten hilabetea. Eskual - Herriko mendi-mazela pherdetan belarrak lodi eta gizen dira zelai xabalenetan bezala, ogiak ere zonbeit egunen buruko epaiterat jinak, mahastiak ez du aspaldian holako itxura pollita izan, eta laborarick, holaxet, badute beren ganer, sabai eta sotoen ontsa betetzeko esperantxa goxo eta altxagarria.

Bainan Harrixuri eta Urtebi egundaino izan ez diren bezala kexu daude, samur, kopeta ilun, begiak zorrotz eta burua gora. Bi auzo hurbilenek ez dute urte hootan hitz bat elgarri erraiten, bakoitza da bere etxean bere familiarekin, auzoa begiko zaino bano gehiago ez dezakela jasan. Inguruak ixilik daude, bakoitza berea gogoan, ez badira egundaino hizkatu ere eta are gutiago joka atzerat menturatu. Alta egun guziez, memento guziez, bi familiak, ez badira bederen beren barnetan hetsirik egiten, ments batzu bezala, elgarren sudur pean bizi dira. Alabainan Harrixuria Urtebitik hogoi urhatsetan da... Bi etxe handi aldean, bakarrik, bertze etxetarik urrun.

Zer gertatu zaiote bada bi familia gaixo horieri, batek bertzeari holako begi ukaldi beltzaren emaiteko? Intzaur-ondo bat... bai intzaur-ondo bat bakarrik, intzaur-ondo zahar bat, ehun urte hurbil dituen eta bere adar nasai eta zabaletarik hiru gaitzuru intzaur ixurtzen dituen Harrixuriko pentzerat eta hiru gaitzuru intzaur Urtebiko landarat. Ondo gotorra, lodi eta gora, bi metra inguru baditu bederen. Bi alhorrak berexten dituen hesian bizi da egundainotik eta ehun urte cremen ditu gosturik hoberenean, nehoi ez zuela kalterik egiten edo aharrarik emaiten, nehoi ez zuela ere madarikatzen eta higuintzen. No arbola, nehoi erran gabe egun batez sortu leku tzar hortan, Jäinkoak hala nahi zuelakotz... Ordu artio nehoi ez zuen aipatzen, denena eta nehoirena zen. Harrixuriko etxekandereak biltzen zituen haren alderdirat erori intzaurrak, Urtebikoak berdin...

Zer intzaur ederrak, dio Harrixuriko Juanañok Urtebiko Maññari, bakoitza bere uzta poxiaren biltzen ari direla, irria frango eginez eta herriko berriak xeheki jorratuz, intzaur-ondoaren itzalpe eztian.

Bai Harrixuritarrak, aita, ama eta semea, bai Urtebitarrak, aita, ama eta alaba, horren itzalpean pausatzen ziren beren lan dorpen artetik, hor egiten beren atsalaskari puxka, hor solasean elgarrekin artzen, hor irri egiten, hor beren izerdiak xukatzen, curia zelarik horren aterberat elgarrekin biltzen...

\* hantetan

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Ixilik daude 32 Zer gertatu zaiote.  
33 Zer... dio 34 Ez dezakela jasan.

31 EGON = rester - Indicatif Present - C. Fort.

Ni mago	= je reste.
Hi hago	= tu restes
Zu gaude	= vs restez
Hura dago	= il reste
Gu gaude	= ns restons
Zuek gaudezte	= vs restez
Hei daude	= ils restent.

32. IZAN - Régime indirect - Indic. Present.

(Hura) da = il est.

Hura (lui) zait	(à moi) = il m'est
zaizu	(à vous) = il vous est
zait	(à lui) = il lui est
zaiqu	(à nous) = il nous est
zaique	(à vous) = il vous est
zait (zaiote)	(à eux) = il leur est

33 ERRAN = dire - Verbe fort - défectif.

Indicatif.

	<u>Présent</u>		<u>Imparfait</u>
Nik diot	= je dis	Nik nion	= je disais
Hik diok / m	= tu dis	Hik hion	= tu disais
Zuk diozu	= vs dites	Zuk zinion	= vs disiez
Harek dio	= il dit	Harek zion	= il disait
Guak dioque	= ns disons	Guak zinion	= ns disions
Zuek dioque	= vs diez	Zuek zinioten	= vs disiez
Heiek diote	= ils disent	Heiek zioten	= ils disaient